

ESKAERA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU OROKORRAK

Eskaera letra larriz eta zenbaki argiz bete behar da.

Parte-hartzaileek ESKAERA BAKARRA aurkeztu behar dute nahiz eta lanpostu mota batean baino gehiagotan lehiatu eta ondorengo jarraibideak jarraituz bete behar da. Eskatera bat baino gehiago aurkeztuz gero, azkenik aurkeztutakoa soilik hartuko da kontuan.

Ikastetxeen, herrien, eskualdeen eta programen kodeak: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa-esparruan sartutako ikastetxe, herri, eskualde eta programak deialdiko eranskinetan argitaratu dira, honako hauen arabera:

- II. eranskina: ikastetxe, herri, eskualde eta postu berezietarako programen zerrenda eta kodeak, maisu-maistren kidegorako.

- III. eranskina: ikastetxeen eta herrien zerrenda eta kodeak, irakaskuntzako gainerako kidegoetarako.

Espezialitateen kodeak: irakaskuntzako kidego bakoitzean parte-hartzaileek eska ditzaketan lanpostuak (espezialitateak) edo postuak deialdiko IV. eranskinetan argitaratu dira, "lanpostu mota"-ren kodeak zehaztuz.

Eskaeran eskaturiko ikastetxeak eta/edo herriak deialdian argitaraturiko ikastetxe- eta herri-kode berarekin idatziko dira. Era berean, eskaeran, "lanpostu mota" zutabearen jarri beharreko espezialitate- eta postu-kodeak deialdian agertutako zenbakizko kode berekin emanen dira, ez beste batzuekin.

Euskarazko lanpostuaren, Lanpostu Elebidunaren eta Lanpostu ibiltariaren kodeak: (Eusk) "euskarazko lanpostua"-ren kodea 1 izanen da (euskarazko lanpostu bat eskatu nahi bada); (Eleb) "lanpostu elebiduna"-ren kodea 2 izanen da (ingelesezko lanpostu elebidun bat eskatu nahi bada); eta (Ibilt) "lanpostu ibiltaria"-ren kodea X izanen da (lanpostua ibiltaria izanen da). Ondorio horietarako, lanpostu desberdintzat hartuko da hizkuntza betebeharra eta/edo ibiltaritza dituenak.

Parte-hartzaile orok honako hau adierazi beharko du:

- Identifikazio datuak eta helbidea, jakinarazpenen ondorioetarako.
- Behin betiko destinoaren datuak edo, halakorik ez badu, behin-behineko destinoarenak.
- Lekualdatze lehiaketa honetan zein modalitatetan hartzen duen parte.
- Lekualdatze lehiaketan parte hartzeko lanpostu-moten kodea (lanpostuak deialdiko IV. eranskinetakoak dira).

Deialdiko zazpigarren oinarriko 1. atalean xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Administrazio honek 2010-2011 ikasturtean deitutako lekualdatze lehiaketan lortutako behin betiko puntuazioa berretsi nahi duten parte-hartzaileek parte-hartze eskaerako behar den laukitxoan hori egin nahi dutela adierazi beharko dute.

NAHITAEZKO PARTE-HARTZAILEA

Deialdiko hirugarren oinarriko egoeretako batean egoteagatik nahitaez parte hartzen dutenek parte hartzeko eskaeraren "Nahitaezko parte-hartzailea" izeneko epigrafea bete beharko dute eta hartan datu hauek ezarri:

Lanpostu- edo espezialitate-moten kodeak, lehentasun hurrenkeraren arabera.

Euskarazko lanpostuaren kodeak, lehentasun hurrenkeraren arabera. Lauki horretan euskarazko lanpostuen eskaeretan 1 jarri behar da eta gaztelaniazko lanpostuen eskaeretan 0 jarri behar da.

IKASTETXEA AUKERATZEKO LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEA

Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea erabiltzen duen parte-hartzaileak parte hartzeko eskaeraren "Ikastetxea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea" izeneko epigrafea bete beharko du eta hartan datu hauek ezarri:

- Eskubide hau zein ikastetxetan erabili nahi duen (ikastetxearen kodea) (ikastetxeak deialdiko II. eta III. eranskinetan daude).
- Zein kasutan hartzen duen parte lehentasunezko eskubide honekin.
- Eta eskubide hau zein eskaeratan erabili nahi den, lehentasun hurrenkeraren arabera. Eskaera bakoitzean honako hau sartzen da: lanpostu- edo espezialitate-motaren kodea (deialdiko IV. eranskinean ezarritakoa) eta, hala behar bada, euskarazko lanpostuaren kodea (Eusk), lanpostu elebidunaren kodea (Eleb) eta ibiltaritzaren kodea. Ondorio horietarako, lanpostu desberdintzat hartuko da hizkuntza betebeharra eta/edo ibiltaritza dituen.

Lehentasunezko eskubidetik kanpoko beste lanpostu batzuetan lehiatu nahi bada, parte hartzeko eskaerako “Eskatzen dituen lanpostuak” izeneko epigrafea osatu beharko da, epigrafe horretarako adierazten diren jarraibideen arabera.

HERRIA EDO ESQUALDEA AUKERATZEKO LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEA

Heria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea erabiltzen duen parte-hartzaileak parte hartzeko eskaeraren “Herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea” izeneko epigrafea bete beharko du eta hartan datu hauek ezarri:

- Eskubide hau zein herritarako erabiltzen den (herriaren kodea), edo, Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioendako soilik, lehentasunezko eskubide hau zein eskualdeetarako erabiltzen den (eskualdearen kodea). Soilik Maisu-maistrei dagokienez eta aukeran, lehentasunezko eskubide hau eskualdeko beste herri batean edo batzuetan erabil daiteke (deialdiko II. eranskina). Hala egiten bada, aukeratu nahi diren herrietako ikastetxe guztiak ezarri beharko dira (herriak multzotan antolaturik egonen dira eta multzo bakoitzean herri bereko ikastetxe guztiak). Era berean, lehentasun hurrenkeraren arabera, soilik ezarriko da eskubide hau zein herritarako erabili nahi den (herrietako kodeak). Postu berezietara atxikitako maisu-maistrek lehentasunezko eskubide hau ezabatutako postuaren jarduera-esparruaren barnean dauden eskualdeetako baten gainean erabili beharko dute (eskualdeak deialdiko II.A eranskinean zerrendatu dira). Ondorio horietarako, postu berezien programetako jarduera-esparrua deialdiko II.B eranskinean zehazten da. Herriaren eta eskualdearen kodeak deialdiko II. eta III. eranskinean zehaztu dira.
- Lehentasunezko eskubide hau zein kasutan erabiltzen den.
- Eta espezialitate guztietako lanpostu-moten kodeak (lanpostu horiek jabetzan dituzte edo haietarako gaiturik daude, lehentasun hurrenkeraren arabera). Hizkuntza-betebeharra (euskarazko lanpostua eta/edo lanpostu elebiduna) eta/edo lanpostu ibiltariak beraiekin dituzten espezialitateetarako lanpostuak erreserbatu nahi badira, lanpostu- edo espezialitate-motaren kodearendako erreserbatutako dagoen laukitxoaren alboko laukitxoetan adierazi beharko da. Nork bere espezialitateen arabera beste lanpostu batzuk borondatez erreserbatu nahi baditu, eskatu nahi diren lanpostuen kodeak adierazi beharko dira deialdiko IV. eranskinaren arabera.

Jarraian, herria edo eskualdea lehentasunez aukeratzeko eskubidea erabili nahi duen parte-hartzaileak parte hartzeko eskaeraren “Eskatzen dituen lanpostuak” izeneko epigrafea honela bete beharko du:

- “Ikastetxea edo herria”-ri dagozkien laukitxoetan honako datu hauek ezarri behar ditu: ikastetxe jakin batzuk eskatu nahi baditu, lehentasun hurrenkeraren arabera, herriko ikastetxe guztien kodeak ezarri beharko ditu (lehentasunezko eskubidea erabiliz) eta, hala behar bada, eskualdean nahi dituen herrietako ikastetxe guztienak. Ikastetxe jakin batzuk eskatuz gero, ikastetxe horiek herrien multzo homogenoen arabera agertuko dira, multzokaturik. Herria eskatu nahi bada, herriaren kodea ezarri beharko da. Herria eskatuz gero, herri horretako edozein ikastetxetan emanen da destinoa, lanpostu hutsak izanez gero. Ikastetxe eta herrien kodeak II. eranskinean (maisu-maistren kidegorako) eta III. eranskinean (irakaskuntzako gainerako kidegoetarako) daude.

- “Lanpostu mota”-ri dagozkion laukitxoetan “HLE” siglak soilik ezarriko dira. Sigla horiekin lehiatzaileak adierazten du lehentasunezko eskubidea erabiliz eskatu duela lanpostua. Horrek esan nahi du eskatutzat jotzen direla “Herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea” izeneko epigrafean ezarritako espezialitate guztiak.

- Euskarazko lanpostuaren (Eusk), lanpostu elebidunaren (Eleb) eta ibiltaritzako lanpostuaren (Ibilt) kodeari dagozkion laukitxoak ez dira ezarri behar, lanpostuak “Herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea” izeneko epigrafean eskatu direlako.

Eskaera eredua: Iruña herria lehentasunez aukeratzeko eskubidea erabiliz, Iturrama HLHIP eta San Juan de la Cadena HLHIP ikastetxeak zehaztuz, Lehen Hezkuntza espezialitateko gaztelaniazko eta euskarazko lanpostuak eskatuz.

“Herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasunezko eskubidea” epigrafean:

Hur	Lanpostu mota			Eusk	Eleb	Ibilt
1	0	3	8			
2	0	3	8	1		

“Eskatzen dituen lanpostuak” epigrafean:

Zk.	Ikastetxea edo herria									Lanpostu mota			Eusk	Eleb	Ibilt
1	3	1	0	0	4	3	0	5		H	L	E			
2	3	1	0	0	7	2	4	0		H	L	E			
3	3	1	2	0	1	0	0	0	2	H	L	E			
4															

Lehentasunezko eskubide honetatik kanpoko beste lanpostu batzuetan lehiatu nahi bada, parte hartzeko eskaerako “Eskatzen dituen lanpostuak” izeneko epigrafea bete beharko da, epigrafe horretarako adierazten diren jarraibideen arabera. Lehentasunezko eskubidetik kanpo eskatutako lanpostuak beti lehentasunezko eskubidea erabiliz eskatutakoaren ondoren ezarri beharko dira.

ESKATZEN DITUEN LANPOSTUAK

Lekualdatze lehiaketako deialdian, parte hartzeko eskaerako “Eskatzen dituen lanpostuak” izeneko epigrafean, parte-hartzaile guztiek borondatez eskatu nahi dituzten eskaerak ezarri beharko dituzte, lehentasun hurrenkeran. Eskaera horiek lanpostu batzuei buruzkoak izanen dira, jabe den espezialitateen arabera eska ditzakeenak, alegia.

Eskaera bakoitzean ikastetxearen edo herriaren kodea eta lanpostu-motaren kodea (espezialitatearen kodea) ezarri beharko dira eta, soilik beharrezkoa denean, markatu beharko dira euskarazko lanpostuaren kodea (euskarazko lanpostuetarako), lanpostu elebidunaren kodea (programa eleaniztunetako programetarako) eta/edo ibiltaritzaren kodea, halako betebeharrak dituen postuak eskatu nahi badira. Eskaerak ikastetxe jakin bati edo herriari buruzkoak izan daitezke eta bi modalitate horiek bateragarriak dira.

Eskaerak formulatzeko, parte hartzeko eskaerako “Eskatzen dituen lanpostuak” izeneko epigrafea honela bete behar da:

- “Ikastetxea edo herria”-ri dagozkien laukitxoetan honako datu hauek ezarri behar dira: Ikastetxe jakinak eskatu nahi izanez gero, ikastetxearen kodeak ezarri behar dira, lehentasun hurrenkeran. Herria eskatu nahi bada, herriaren kodea ezarri behar da; herria eskatuz gero, herriko lehen ikastetxea esleituko zaio, lanpostu hutsik edo gerakinetara utzitakorik badago. Herri bateko ikastetxeei dagokienez, lehentasunez ikastetxe bat edo batzuk eskatu nahi badira, ikastetxe horiek bana-banako eskaera modura hartuko dira, lehentasun hurrenkeran, eta, jarraian, herriari dagokion kodea ezarri beharko da. Hartara, herriko gainerako ikastetxeak gehituzat joko dira deialdian argitaraturik ageri diren hurrenkeran. Ikastetxe eta herrien kodeak deialdiko II. eranskinean (maisu-maistren kidegorako) eta III. eranskinean (irakaskuntzako gainerako kidegoetarako) daude.

